

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

271/2026 Erabakia, maiatzaren 5koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea landa inguruneko erakundeek egindako landa bideak egokitzeko eta nekazaritza jarduerak sustatzeko intereseko beste inbertsio batzuetarako laguntzen deialdia

2025eko martxotik uztaile bitartean, ekaitz gogorrek gertatu ziren Arabako Lurralde Historikoko hainbat eremutan, eta eragin nabarmena izan zuten landa bideen sarean.

Fenomeno horiek kalte handiak eragin zituzten Arabako Foru Aldundiko Bideen Erregistroan inskribatutako bide askoren egitura eta errodadura geruzan, eta horrek zaildu egin zuen nekazaritza ustiategiara sartzea, eta erabiltzaileen segurtasuna arriskuan jarri zuen.

Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuak egindako ebaluazio teknikoaren ondoren, egiaztatu da azpiegitura horiek konpontzeko, egokitzeko eta hobetzeko jarduketak premiaz egin behar direla.

Era berean, indarrean dagoen arau esparruak ezartzen du Arabako Foru Aldundiak laguntza lerroak sustatu behar dituela landa bideak kontserbatzeko eta hobetzeko, bai eta nekazaritza garapenari lotutako beste inbertsio batzuetarako ere.

Ildo horretan, apirilaren 14ko 13/2026 Foru Dekretuaren bidez, landa bideak egokitzeko laguntzen eta landa inguruneko entitateek egindako nekazaritza jarduerak sustatzeko beste inbertsio interesgarri batzuen oinarri arautzaileak onetsi dira, eta laguntzen xedea zabaltzen da, nekazaritza intereseko beste inbertsio batzuk gehituz (makinak, instalazioak edo obrak), nekazaritza ustiategiaren lehiakortasuna, segurtasuna eta errentagarritasuna hobetzeko xedearekin.

Azaldutako aurrekariak ikusita, beharrezkotzat jotzen da 2026ko ekitaldirako laguntzen deialdia onestea, batetik, fenomeno naturalek eragindako kalteei erantzuteko, eta, bestetik, nekazaritza azpiegiturak hobetzeko egiturazko premiei erantzuteko.

Deialdia funtsezko tresna da landa bideen sarea erabilera baldintza egokietan mantentzen dela bermatzeko, eta, horrela, nekazaritza ustiategiarentako irisgarritasuna bermatzen, erabiltzaileen segurtasuna hobetzen eta nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueraren garapenaren efizientzia errazten laguntzeko.

Era berean, diruz lagun daitezkeen beste inbertsio batzuk txertatzeak nekazaritza sektorea modernizatzen aurrera egitea ahalbidetzen du, landa ingurunearen produktibitate eta jasangarritasun handiagoa ekarriko duten baliabide materialak eta azpiegiturak emanez.

Administrazioaren ikuspegitik, komenigarria da deialdi bakar bat antolatzea, oinarri arautzaileetan jasotako inbertsio tipologia guztiak bilduko dituena. Horri esker, baliabide publikoen kudeaketa eraginkorragoa izango da, espedienteen izapideak sinplifikatuko dira eta erakunde onuradunek jarduketan plangintza hobetuko dute.

Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldirako gastuen aurrekontuan partida hauek daude, saldoen eta urteen xehetasun hauekin:

– “40101. G/414400/76290423 Nekazaritzako azpiegiturak hobetzea.”

- 2026. urtea: 200.000,00 euro.
- 2027. urtea: 750.000,00 euro.

– “40101. G/414400/76290424 Ustiategietako instalazio osagarrien deialdia.”

- 2026. urtea: 10.000,00 euro.

Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 14ko 216/2026 Erabakiaren bidez, partida horiei dagozkien aurrekontu aldaketak onetsi ziren, eta honako saldo eta urteko kuota hauek izan zituzten:

– “40101. G/414400/76290423 Nekazaritzako azpiegiturak hobetzea.”

- 2026. urtea: 295.000,00 euro.
- 2027. urtea: 300.000,00 euro.

– “40101. G/414400/76290424 Ustiategietako instalazio osagarrien deialdia.”

- 2026. urtea: 25.000,00 euro.

Bi partidetako batean kreditu soberakina egonez gero, bestera bideratu ahalko da premia izanez gero, kontuan izanda zein lehentasun ordena ezarri den oinarri arautzaileen 7. artikuluan.

Horrenbestez, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea landa bideak egokitzeko eta landa inguruneko erakundeek egindako nekazaritza jarduerak sustatzeko intereseko beste inbertsio batzuen laguntzen deialdia, 620.000,00 euroko zenbatekoarekin. Dirulaguntza horiek Gobernu Kontseiluaren apirilaren 14ko 13/2026 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera arautuko dira, honako xehetasun hauekin:

– Laguntzen deialdiko inbertsioak:

– Euri jasek edo beste fenomeno natural batzuek eragindako kalteen ondorioz bideak egokitzeko eta hobetzeko jarduketak, baldin eta urgentziak eta beharrak lehentasunezko arreta justifikatzen badute deialdiaren barruan (4.4 artikulua).

Taldeko erakundeak: Mañueta, Lagran eta Samaniegoko Udalak, eta Amarita, Antezana, Arroiabe, Artatza-Axkoeta, Basquiñuelas, Berantevilla, Hereña, Lacervilla, Lasierra, Leciñana Oka, Luna (Gillarte barne), Menoio, Ormijana, Oteo, Páganos, Pipaón, Pobes, Erretana eta Tuyoko Administrazio Batzarrak.

– Lehendik dauden bideak egokitzeko eta kontserbatzeko jarduketak (4.2 artikulua).

– Landa bideen mantentze, kontserbazio eta hobekuntza funtzionalerako beharrezkoak diren beste inbertsio batzuk (4.5 artikulua): landa bideak mantentzeko makina egokiak erostea (4.5.1 artikulua), kontserbazioarekin edo nekazaritza erabilerarekin lotutako instalazioak (4.5.2 artikulua) eta funtzionaltasun egokirako beharrezkoak diren obra osagarriak (4.5.3 artikulua).

– Jarduketa orokorren kostuak, obra proiektua idaztearekin, obra zuzentzearekin, segurtasunaren eta osasunaren gaineko oinarritzko azterlanarekin eta beharrezkoak izan daitezkeen eta inbertsioaren proiektua egikaritzeko beharrezkoak diren azterlan tekniko guztiekin lotutakoak, Nekazaritza Sailak jarduketa horiek gauzatzeko teknikaririk ez duenean edo beste arrazoi batzuegatik horixe zehazten denean. (4.6 artikulua).

Laguntza hauen onuradunak landa bideen titularrak diren toki erakundeak izango dira, bai eta lurralde historikoan nekazaritzaren arloan inbertsioak egiten dituzten beste erakunde publiko batzuk ere, betiere oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

– Eskaerak aurkezteko epea: 20 egun baliodun, erabaki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

– Eskakerak aurkeztea:

Laguntza eskaerak, 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, telematikoki aurkeztu behar dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko berariazko izapidearen bitartez <https://egoitza.araba.eus/eu/-/ayudas-caminos-rurales>, eredu normalizatuan.

Egoitza elektronikoko zerbitzuak erabiltzeko, nahitaezkoa da modu telematikoan identifikatzea, ziurtagiri digital baten edo BAKQ sistemaren bidez: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>.

Eskakerak eskatzailearen ordezkari batek ere aurkeztu ahal izango ditu, baldin eta aurrez izapide hori gauzatzeko beharrezko baimen maila ezarri bada egoitza elektronikoa: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/baimenak>.

Erregistro elektronikoa bakar batean aurkeztu daitekeen gehieneko luzera gainditzen duen dokumentazio osagarria aurkeztu behar bada, beste aurkezpen bat egin ahal izango da. Aurkezpen horretan, zer erregistro zenbaki edo kode individualizaturen osagarria den aipatu beharko da, gutxienez, edo hura identifikatzeko informazio nahikoa.

Erakunde eskatzaileek laguntza eskaera bakarra aurkeztu behar dute, eta, bertan, egin beharreko jarduketa guztiak jaso behar dituzte, bai eta lan horiek zein bidetan gauzatu nahi dituzten ere.

– Inbertsioak egiteko onartzen den epea: euri jasek edo beste fenomeno natural batzuek eragindako kalteen eragina jasan duten bideetan inbertsioak egiteko, 11.7 artikuluan xedatutakoaren arabera eta gainerako inbertsioetarako, laguntza arautzen duten oinarrietako 11.6 artikuluan xedatutakoaren arabera.

– Aurkeztu behar den dokumentazioa: laguntza hau arautzen duten oinarrietan ezarritakoa (11.3 artikulua).

– Puntuazioa eta lehentasun irizpidea: laguntza hau arautzen duten oinarrietan ezartzen direnak (7. artikulua).

4.4 artikuluko inbertsio taldeak lehentasuna izango du 4.2 artikuluko inbertsio taldearen aldean.

– Laguntzaren ehunekoa:

• Euri jasen edo beste fenomeno natural batzuen ondorioz egin beharreko jarduketa bereziak (4.4 artikulua): ehuneko 80.

• Lehendik dauden bideak egokitzea eta kontserbatzea (4.2 artikulua): ehuneko 65.

• Nekazaritza jarduera garatzeko interesgarriak diren "beste inbertsio batzuk" (4.5 artikulua): ehuneko 80.

• Jarduketa orokorren kostuak (4.6 artikulua): kostu zenbatetsiaren ehuneko 100.

– Erakunde bakoitzak gehienez eska ditzakeen bideak (inbertsioak):

• 4.4. artikulua arabera aurreikusitako erakunde inbertsioetarako: mugarik gabe.

• Gainerako erakunde inbertsioetarako (4.2 eta 4.5 artikuluetako inbertsioak): bi.

– Erakundeko gehieneko zenbatekoa:

• 4.4. artikulua arabera aurreikusitako erakunde inbertsioetarako: mugarik gabe.

• Gainerako erakunde inbertsioetarako (4.2 eta 4.5 artikuluetako inbertsioak): 45.000,00 euro.

– Inbertsioa diruz lagundu ahal izateko gutxienezko zenbatekoa erakundeko: 4.000,00 euro.

Bigarrena. Esleipena baimentzea aurrekontu partida hauetan, ezarritako urtekoen arabera:

– Arabako Foru Aldundiko 2026. urterako gastuen aurrekontu partiden kargura, 4.4 eta 4.2 lerroetarako zenbatekoen eta urtekoen xehetasun honen arabera:

• “40101. G/414400/76290423 Nekazaritzako azpiegiturak hobetzea.”

– 2026. urtea: 295.000,00 euro.

– 2027. urtea: 300.000,00 euro.

– Arabako Foru Aldundiko 2026. urterako gastuen aurrekontu partiden kargura, 4.5 lerroko zenbatekoaren eta urtekoaren xehetasun honen arabera:

• “40101. G/414400/76290424 Ustiategietako instalazio osagarrien deialdia.”

– 2026. urtea: 25.000,00 euro.

4.6 lineari lotutako gastuak lotuta dauden lerroari dagokion partidaren kontura izango dira.

Kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango dira, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, baita aurrekontu partidan edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere. Diru kopuru gehigarri horien zenbatekoa, gehienez ere, deialdi osorako hasieran erreserbatutakoaren berdina izango da.

Bi partidetako batean kreditu soberakina egonez gero, bestera bideratu ahalko da premia izanez gero, kontuan izanda zein lehentasun ordena ezarri den oinarri arautzaileen 7. artikuluan.

Hirugarrena. Nekazaritza Saileko diputatuari ahalmena ematea erabaki hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Laugarrena. Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, nahi izanez gero, EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bosgarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 5a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA